



HERRIKO MUSIKA TALDEEN SAIO APARTA

Santa Zeziliako kontzertuan zazpi taldek hartu zuten parte herenegun; jende ugari bildu zen Leidor aretoan 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2007-11-27

V.URTEA 1.298.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Euskal Herriko lehen Txirrindularitza Teknifikazio Zentroa zabalik Tolosan

EKITALDIA Atzo inauguratu zuten Tolosako Udaleko, EAEko eta Espainiako Gobernuo ordezkariak egoitza

ZUZENDARITZA Abraham Olano txirrindulari ohia izango da zuzendaria, eta Iñaki Arratibel mediku zuzendaria z



Amaia Agirre Bertsolari Txapelketan, ia finaletik at

VILLABONA Oiartzunen, finalerdiko saioan, hirugarren geratu zen 484,5 punturekin 6

**Euskarari
eta literaturari
buruz, hitzaldia
eta ikastaroa
Asteasun 3**

**Bi ibartar
hil dira
asteburuan,
tren istripu
baten ondorioz 6**

“Natura bezain eraginkorra”



PEUGEOT 308
berria



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Txirrindularitzan Espezializatutako Teknifikazio Zentroaren inaugurazioko uneak, atzo, Usabal kiroldegian. L.TERRADILLOS

Txirrindularitza Espezializatutako Teknifikazio Zentroa inauguratu dute

Kirola » Egoitza Usabal kiroldegian du; zuzendaria Abraham Olano izango da, eta mediku zuzendaria Iñaki Arratibel

ESTI EZEIZA

Atzo goizean inauguratu zuten Txirrindularitza Espezializatutako Euskal Herriko lehenengo Kirol Teknifikazio Zentroa. Egoitza izango duen Usabal kiroldegian bildu ziren, Kiroletarako Espainiako zuzendaria den Jaime Lissavetzki; Gobernuko ordezkarioa, Francisco Jordan; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Tolosako Udaleko Kirol zinegotzi den Oscar Renedo eta Iñaki Arratibel mediku zuzendaria.

Zentroaren helburuak

Zentroa oinarri txirrindularitza espezializatua dago, eta kirol hori praktikatu nahi duten kirolzale guztiei irekita dago. Helburua txirrindularitzaren teknika irakastea da; bai ibilbidean, bai pistean, bai BTTan. Bakarka nahiz taldeka.

Landuko diren gaiak

Usabalgoa kalitatezko kirol espazioa da, txirrindulariei prestakuntza tekniko eta laguntza emateko. Era berean, egungo txirrindulariak ordezkatuko dituzten kirolari gazteak hautatzeko, perfektionatzeko eta jarraipena egiteko ere izango da zentroa.

Oinarri txirrindularitza du espezialitate zentro berriak, hau da, kadete, jubenil maila, nahiz zaletuak. Arduradunen esanetan, «txirrindularitza aritu nahi duen orori dago zuzenduta». Honen bitartez, Tolosako Udalaren helburua txirrindularitza sustatzea da, kirol osasungarria den aldetik, baita bizikletan ibiltzeko eta txirrindularitzako teknikak zer diren adieraztea ere. Hainbat txirrindularitza modalitate landuko dituzte. Hala nola, ibilbidea, pista... Taldeka zein banaka.

Irakaskuntza teknikoaz gain, beste gai batzuk ere jorratuko dituzte. Horien artean, osasungintza, errendimendura eta kirol bizi-tzara bideratutako dietetika. Era berean, kirol balioen inguruko hezkuntzari ere garrantzia emango dio zentroak: garbitasuna kirolean, gaintzeko eguneroko borroka, ohiko entrenamendua eta taldekolana.

Abraham Olano txirrindularia izango da kirol zuzendaria; hots 1998ko Espainiako itzuliaren irabazlea eta urte bereko erlojupeko txirrindularitzako munduko txapeladuna. Zentroko mediku zuzendaria Iñaki Arratibel izango da. Honek, eskarmentu handia du kirolaren alorrean oro har, eta bere-



Inaugurazio ekitaldiaren hasieran, Iñaki Ugarteburu, Jokin Bildarratz eta Jaime Lissavetzki mintzatu ziren. I. TERRADILLOS



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea Usabal kiroldegia instalakuntzak erakutsi zizkien bertaratutakoek. I. TERRADILLOS



Ekitaldiaren amaieran, zentroko mediku zuzendaria izango den Iñaki Arratibelek zenbait azalpen eman zituen. I. T.

ziki txirrindularitza. Izan ere, txirrindularitzako hainbat taldetako medikua izan da.

Finantzaketaren nondik norakoak

Zentroa egiteko 5,5 milioi euroko inbertsioa egin dute. Kiroletako Kontseilu Nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Tolosako Udalaren artean ordaindu dute. Hauek, 1,5 milioi Kontseilu Nagusiak ipini ditu, Foru Aldundiak beste 0,5 milioi, eta gainontzekoa Tolosako Udalak.

Kirolariet instalazio modernoak izango dituzte eskura. Horien artean, gimnasioa makinekin eta bizikleta espezializatuekin (Bicicap, esate baterako), txirrindularitzako teknikak ikertzeko makinak eta potentzia zuzenean neurtzeko sistemak. Era berean, prebentzio jardueretarako eta jarraipen biomediko osoa egiteko behar beste baliabideak dituen zentro medikua ere izango da. Horiez gain, ikasgela pedagogikoa ere izango du zentroak, dietetika alorra joratzeko hitzaldiak eta trebakuntza ikastaroak emateko. Bestalde, birgaitze gunea eta bainuetxea ere izango ditu, baita squashean eta padlean jokatzeko aretoak eta entrenatzeko areto balioaniztuak ere. Kirolariet, gainera, Usabal kiroldegiko gainontzeko instalazioak ere erabili ahal izango dituzte.

Zentroak 3.300 metro karratu ditu, eta txirrindularitza praktikatzeko ekintzak ez ezik, Txirrindularitza Entrenatzaileen Estatuko Eskola ere hartuko du.

Inaugurazio ekitaldia

Atzo eguerdian egin zuten inaugurazio ekitaldia. Hasieran, Udaberriko dantzari batek aurrekua dantzatu zien agintariet, ongi etorria eginaz. Jarraian Tolosako alkateak hartu zuen hitza. Honen esanetan «Tolosarentzako eta euskal kirolarentzako etapa berri bat hasi da zentro honekin». Gaineratu zuen ere, «orain, Tolosa, kirolean ere erreferente» izango dela.

Bildarratzen ostean Iñaki Ugarteburu mintzatu zen, honek adierazteko eman zuen, atzoko inaugurazioarekin, «Gipuzkoako kirolarentzako berri on bat ematen» ari zela. Azkenik, Jaime Lissavetzki hitz egin zuen, eta zentroa honek balio sustatuko dituela nabarmendu zuen: osasuna, hezkuntza eta kirola. Hiru hizlariet bat egin zuten esanaz, «zentro hau, administrazioen arteko lankidetzari esker lortu» dela.

Agintarien azalpenen ostean, Usabal kiroldegia sarreran kokatu duten plakari estalkia kendu zioten. Jarraian, instalakuntzak ikusteari ekin zioten. Jokin Bildarratz alkateak gainontzeko kiroldegia nondik norakoak azaldu zizkien. Jarraian, Iñaki Arratibel medikuak, Txirrindularitza Espezializatutako Kirol Teknifikazio Zentroaren xehetasunak agertu zizkien bertaratutakoek.

Tolosa » Jende ugari elkartu zen Leidorren Santa Zeziliako kontzertuan; zazpi taldeen lana txalo zaparradez eskertu zuen

«Musika ekitaldi aparta» Leidorren herriko musika taldeen eskutik

ERREDAKZIOA

Musika ekitaldi aparta eskaini zuten igandean herriko musika taldeek Santa Zezilia bere zaindarien eguna ospatzeko. Leidor aretoan entzule ugari elkartu ziren herriko hiru musika eskoletatik sortutako interpreteen lana entzuteko: Eduardo Mokoroa udal musika eskolatik ateratakoak ziren gehienak, eta Isidro Larrañaga musika eskolan eta Esnaola-Urruzola musika eskolan ari diren ikasle eta irakasle asko ere pasatu ziren Leidorko eszenatokitik.

Giroartekoak, emanaldiari hasiera emanez

Ohi bezala, Giroarte dultzaina taldeari egokitu zitzaion ekitaldiari hasiera ematea. Iñaki Salbadorrekin ikasitako dultzainari asko izan ziren taulatuan, baina ez ziren bereaiek bakarrik aritu. Euskal soinu tresna gehiago ere bildu ziren (alboka, trikitixa, panderoa eta txalaparta eskualdeko musikari onenen eskutik, Jon Garmendia ibararra, Beñat Luluaga anoetarra, Eguzki Dorronsoro eta Zorabiok taldea) oso talde kompletoa osatuz eta emaitza interesgarriak lortuz.

Udal Txistulari Banda ohiko seikotearekin agertu zen aurten Leidorrean Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean eta antzokia baso bihurtu zuen txori ugarien kantua bere instrumentuekin ederki imitatuz.

Maiatz akordeoi orkestragaztea da Santa Zezilia kontzertuan berrienetakoa. Jesus Mari Esnaola irakasle beraren bi obra eskaini zituen, egilea bera eta Nerea Labaien bakarlari gisa arituz. Maribi Urruzola zuzendariak talde ederra osatu duela erakutsi zuen igandean.



Goian, Arimaz kamera orkestra; behean, ezker-eskuin, Tolosako Musika Banda eta Maiatz akordeoi orkestra gaztea. ANDER OTEZABAL

zola zuzendariak talde ederra osatu duela erakutsi zuen igandean.

Arimaz, aurtengo berrikuntza

Arimaz kamera orkestra izan da berrikuntza. Harizko instrumentuen ikasleek jendaurrean bere lana erakusteko parada izan zuten Kepa Martínez de Albenizen batutapean Miguel Alonso trompeta irakaslea bakarlari gisa ari zela. Harizko musika tresnek kontrapunto atsegina jarri zuten kontzertuan zehar entzun ahal izan ziren beste familietako tresnen artean.

Hodeiertz abesbatza izan zen

oraingoan ahots talde bakarra, Enrique Azurza zuzendari zuela.

Umama II grabatzetik zetorren eta munduan zehar gehien ibili den eta gehien saritu duten musika talde tolosarra izatearen arrazoiak berriro taula gainean jarri zituen doinu euskaldun eta afrikar batzuen bidez.

Txalo zaparrada handiena Isidro Larrañagakoentzat

Isidro Larrañagaren akordeoi orkestra Pragan nazioarteko lehiaketa garrantzitsu bat irabaztetik etorri zen Leidorrean eta nabaritu

zen entzulegoaren erantzunean. Lehiaketa irabazteko erabili zuten Liszt-en *Rapsodia hungara 2* entzuteko aukera eman zien entzule tolosarrei eta hauek saioko txalo zaparrada handienaz eskertu zioten oparia.

Ekitaldiari amaiera emateko, antolatzaleak agertu ziren Leidorreko eszenatokian: Tolosako Musika Banda. Shostakovich-en *Jazz suite 2* obra ausartaren bost zenbaki aukeratu zituen okasio berezi honetarako eta Oihane Igerabide harpajole adunarra, Iker Otermin baxujole anoetarra eta Irati Arturtxa akordeojole tolosarra izan zi-

tuen laguntzaila gonbidatu gisa. Begi eta belarri gehienak harpari arreta berezia jarri zioten obran zehar, bandak inoiz erabili gabeko tresna ekarri baitzuen oraingoan. Bakarlariek eta musikari guztiek entzulegoa gustura utzi zuten lortutako emaitzarekin eta bandak propina gisa eskaini zuen *Staccato* alai bere oso atsegina egin zitzaizkien gutzietan.

Hemendik aurrera, herriko musika taldeek lanean jarraitzeko beste urtebete daukate eta lan horren emaitza ikusteko Leidorren elkartuko gara berriro Santa Zeziliaren inguruan.

Kike Amonarrizek euskara eta Yolanda Arrietak literatura izango dituzte hizpide

Asteasu » Pello Errota eskolak eta Udalak antolatuta dituzte; hitzaldia gaur izango da, eta ikastaroa bihar

ERREDAKZIOA

Asteasuko Pello Errota eskolak Udalarekin batera hitzaldia eta ikastaroa antolatuta ditu euskararen eta literaturaren inguruan. Kike Amonarriz eta Yolanda Arrieta izango dira, hurrenez hurren, hitzaldia eta ikastaroa emango dutenak. Udalerriko Euskara Biziberritzeko Plan nagusian kokatzen dira antolatuta dituzten bi ekitaldiak.



Kike Amonarrizek emango du hitzaldia eta Yolanda Arrieta arduratuko da ikastaroaz. IÑIGO TERRADILLOS/HITZA

Alde batetik, Kike Amonarrizek *Asteasu eta euskara: nolako etorkizuna* hitzaldia emango du gaur, 18:30ean, udaletxeko aretoan.

Irudimena nola elikatzen den

Ikastaroa Yolanda Arrietak emango du, guraso eta irakasleentzat zuzenduta. *Iruditik hitzera. Hitzaldi bilgunea* izeneko ikastaroaren bi saio emango ditu bihar. Lehenengo 14:45etik 16:15era eta bestea 17:00etatik 18:30era, eskolako liburutegian. Ikastaroa euskaraz egingo dute.

Ikastaroaren helburua literaturaz gozatzeko baliabideak ezagutaraztea da. Besteak beste, hainbat galderen inguruan hausnartuko dute ikastarora joaten direnek: Zer dago ipuin baten atzean? Zer dago olerkien ostean? Nola elikatzen dugu irudimena? Non hasten da sortze prozesua? Zer egin dezaket liburu batekin? Zertarako balio ote du literaturak?

Harrera bikaina izan du Titirijaik lehen egunetan

Tolosa » Gaur herriko zazpi gunetan izango dira ikuskizunak, bai gaztetxoentzat bai eta helduentzat ere

ERREDAKZIOA

Zilarrezko ezteiak ari da ospatzen aurtengo Titirijai, eta modu berezian ari da egiten gainera, izan ere, urte hauetan guztietan arrakasta gehien izan duten txotxongilo taldeak gonbidatu dituzte aurten. Hala, lehen egunetan erruz ari da gerturatzen jendea, bai ikuskizunetara, bai eta Txekiar Txotxongilora Leihoa Aranburu jauregiko erakusketara ere.



La Chana taldearen *Vulgarcito* ikuskizunaren une bat, atzo. ESTI EZEIZA

» GAURKO EGITARAUA

- **Leidor antzokia.** 12:00etan eta 15:00etan, izango da ikusgai, Drak taldearen (Txekia) *Flying babies* ikuskizuna.
- **Gorosabel auditorioa.** 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Divadlo Lisen-en (Txekia) *Robinson* ikusgai.
- **Ferialekua.** 11:00etan eta 15:00etan izango da, Divadlo Alfa taldearen (Txekia) *Los tres mosqueteros*.
- **Kultur Etxea.** 10:30ean, 15:00etan, eta 18:00etan izango da ikusgai, Teatro plusen (Asturias) *La leyenda del farol* ikusgai.
- **Beotibar pilotalekua.** 11:00etan eta 15:00etan, Cia. Nal de Hanoi-ren (Vietnam) *Marionetas sobre el agua*.
- **Kasinoa.** 20:30ean eta 22:30ean izango da ikusgai, Teatro Haraporen (Argentina) *Amoratado* ikuskizuna.

Laburrak

Inauteriei begira bilera egingo da etzi 21:00etan

LIZARTZA » Ihauterik goiz iritsiko dira aurten eskualdera eta Lizartzan iadanik prestatzen ari dira. Urtarrilaren 19, 26 eta 27an ospatuko dira eta aldaketak aztertzeko bilera egingo dute azaroaren 29an, etzi, 21:00etan Arantzabenen. Otsolar Dantza Taldetik jakinarazi dutenez, «aurten larunbateko bazkaria, urtarrilaren 26koa, denok batera frontoian egitea posible den aztertuko dugu etziko bilera, heritarrek bertara gonbidatu nahi ditugu, proposamenak eta aukera hau aztertzeko asmoz».

Udalbatza gaur 18:00etan EAEren deialdi eta guzti

IBARRA » Udalbatza Osoaren Ohiko Bilkura egingo da gaur 18:00etan udaletxean. Eguneko gai zerrenda bost puntuk osatuko dute, horien artean «Udal plantilako langileen-tzat onuragarri diren baldintza ekonomiko eta sozialak, Udalhitzen sartzekoak» aztertuko dira. Bestalde, Ibarra ANV-EAEk plenera agertzeko deialdia egin die herritarrei, «710 herritarrek udal-txean ordezkariak eta erabakitzeko aukerarik ez dutela salatze-ko».

Vanpac paper lantegiko sutea itzali dute

LEITZA » Papera birziklatzen duen Leitza Vanpac lantegian sutea piztu zen herenegun, 03:45 aldera. Altsasuko eta Iruñeko suhiltzai-leak aritu ziren bertan itzaltze lanetan, eta 06:00etarako kontrolpean bazuten ere, ordu batzuk gehiago behar izan zituzten guztiz itzaltzeko. Atzo, 10:00etan dagoneko itzalia zegoela jakinarazi zuten. Hain zuzen, urtebeteko epean Vanpac enpresaren egoitzetan sutea izaten den hirugarren aldia da.

Durangoko Azokara joateko autobusa

BALIARRAIN » Baliarraingo Udalak datorren astean hasiko den Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara joateko autobusa antolatu du (taldea osatzen bada). Abenduaren 6an izango da, 14:30ean aterako dira plazatik eta 19:30ean abiatuko dira bueltan Durangotik. Biharko da izena emateko eguna eta udaletxera deituta egin daiteke.

Bihar kontsumo gutxiko bonbilak banatuko dituzte

VILLABONA » Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) antolatutako energia aurreztearen aldeko kanpainaren bidez, gerturatzen diren herritarrei kontsumo gutxiko bonbilak banatuko dizkiete bihar doan, 11:00etatik 14:00etara, Berdura Plazan (Kale Nagusiaren aldean).



Genero indarkeria gaitzesteko eguna

GIZARTEA » Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna izan zen herenegun. Hori dela eta, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende ugari bildu zen Triangulo plazan, Bilgune Feministak deitutako elkarretaratzetan. Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu lelopean «oraindik ere

emakumeak zapalduak» daudela adierazi nahi izan zuten. Bilgunekoek deitutako manifestazioaren ostean, toki berean, Udalekoek deitutakoa izan zen. Bestalde, herriko estatua guztiak zapi beltzekin estali zituzten, egun horretako dolua erakusteko. ANDER OTEZABAL

Gaitzesteko Eguna

Abenduak 1, larunbata

ORDIZIA, Majori kalea

18:00

Aitor Sarriegi

Aitor Mendiluze

Iñaki Zelaia

Unai Muñoz

Jose Munduate

Iñaki Gurrutxaga

hitza

www.gaitzesteko.com

Euskararen eguna

Abenduak 3

Antzerkia

LEIDOR ARETOAN

Zenbat gara antzerki taldearen Hamaika koloreetan dantzan 17:30

Sarrera doan

Hitzaldi-egutegia

TOLOSASKO KULTUR ETXEAN 19:30

- **Hizkuntz dibertsitate berriaren eragina hizkuntz gutxituen normalizazio prozesuan.** Hizlaria: Xavier Aierdi IKUSPEGI Inmigratioaren Euskal Behatgikiko zuzendari kide 2003az geroztik.

Abenduak 5

Afaria

- **Uzturre sagardotegian** 21:00 Ondoren trikitaliak Sarrerak salgai: Ikatz tabernan, Trianguloa kafetegian, Galtaundiko egoitzan.

Prezioa: 22 euro

Erosteko epea: Abenduak 1

Sentimentuetatik Hizkuntza Erabilerara II

Hizlaria: Joseba Antxustegietxarte Aranburu Hirukideko Hizkuntza Normalizazioaren Arduradun Teknikoa, Galdera txanda.

Bigarrenaren aurrean ere nagusi

Saskibaloia » Garaipen honekin Tolosa Aralar sailkapenaren seigarren postuan dago, hirugarren taldearekin berdinduta

ziren Aralarakoak. Bigarren laurdenean, eta defentsa gogor batekin, nafarrek 12 puntu soilik erdietsi zituzten eta atsedenaldira markagailuari buelta emanda iritsi ziren (36-33).

ERREDAKZIOA

Garaipen bikaina lortu zuten Tolosa Aralar-eko mutilek pasa den larunbatean Usabalen, afizioa lortzen duten garaipen horietako bat. Izan ere, aurkaria bigarren postuan zegoen eta igoera fasea jokatzeko hautagai nagusietako bat da. Gainera, etxeok zalantza askorik zelairatu ziren.

Apatia handi xamarra erakutsi zuten Tolosakoek eta partidako lehen minutuetan antzeman zen, kanpotarrek aurrea hartu baitzuten. Lehen laurdenaren amaierara 6 puntuko desabantailarekin iritsi

Beteranoen aldeko apostua

Atsedenalditik bueltan, partida hasierako egoera berdintsua jasan behar izan zuten: kanpotarrak gauzak ondo eginez eta etxeok ez. Azken laurdenean, Jimmy entrenatzaileak beteranoen aldeko apostua egin zuen eta emaitza ona izan zen. Goarrek 28 puntu lortu zituen, eta defentsa sendo batekin, garaipena etxean geratu zen.

Garaipenarekin, seigarren postura igo dira, hirugarrenarekin berdinduta. Datorren astean Bilboko Suminan talde gogorraren aurka jokatuko dute. Neurketa larunbatean 18:20etan izango da.

Tolosak 4-1 galdu zuen Amurrioren aurka

Futbola » Nahiz eta 60 minutu 10 jokalariekin jokatu, Amurriotarrek modu erosoan lortu zituzten hiru puntuak

osoa hamar jokalariekin egin zuen Goñik arratsaldeko bigarren txartel horia ikusi ondoren. Lehenengo minutuan urdinak Aitorren gol batekin aurreratu ziren, baina tamalez pozak gutxi iraun zuen. Hemeretzigarren minutuan Eneko Pinedok berdinketa lortu zuen, eta hiru minutu beranduago, Arkaitzek Amurriotarrak aurreratu zituen. Tolosakoak gogotsu ibili ziren golaren bila, eta berdinketa lortzeko aukera ugari izan zituzten, baina aurrelariak punteriatxarrenekin ibili ziren. Azken minutuetan bi gol gehiago jaso zituzten, markagailua 4-1 geratuz.

ERREDAKZIOA

Amurriok denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Tolosa menderatu ondoren. Tolosarrak azken aldia ez dabilta batere fin, eta momentu honetan sailkapeneko azken postuan daude bederatzipuntuekin.

Etxeko taldeak ia norgehiagoka

Laskorainek Sasikoa taldea menderatu zuen

Areto futbola » Aurreko asteko kolpe mingarria eta gero, 4-2 garaitu zuen Sasikoa talde bizkaitarra, zalantzak alde batera utziz

eman ondoren. Kanpotarrek 1-1-eko berdinketa lortu zuten baina Otxoak beste behin eta Saldiasak, 3-1eko emaitzarekin itxi zuten aldegeletarako bidea.

Bigarren zatian, Telletxeak aldeareagotu zuen albotiko jaurtiketa bat jokalaririk bizkaitar batek bere atean sarreratzearen ondorioz. Penalti argi batek 4-2ko azken emaitza baimendu zuen 8 minutu faltan. Azken minutuetan tentsio handia eta jokaldi eztabai-datuak egon ziren, baina hiru puntuak etxean gelditu ziren.

ERREDAKZIOA

Garrantziz beteriko norgehiagoka izan zen Laskoraintzat iragan steburuko partida. 1-0 aurreratu ziren horitxoak Saldias kapitainak zuzenduriko kontraeraso bati Otxoa gazteak bultzakada aparta

Nire Familia Plana



Orain etxean 2 bakarrik bizi bazarete, zergatik egiten duzu zortzirentzako bazkaria?



Horrelakoak garelako,
Nire Familia Plan berria

Delak eta bideo-delak. Mugikorretik finkora. Finkotik mugikorrera. Zuen mugikorren artean. **0zent. min**



1717 zenbakira deitu edo Euskaltelen salbitokian

Lasaitasunarekin... Ezarpenak... 1717 zenbakira deitu edo Euskaltelen salbitokian... 1717 zenbakira deitu edo Euskaltelen salbitokian...



Jende ugari bildu zen larunbatean AHT gelditu! Elkarlanak antolatutako bertso saioa ikustera. HITZA

Gipuzkoako Txapelketak eta AHTren aurkako saioak bildu ditu bertsozaleak

Kultura » G puntuaren barnean Amaia Agirre billabonatarak Oiartzunen finalerako txartelari ia agur esan zion larunbatean

ASIER IMAZ

Tolosaldearekin lotuta bertsolari-tzak bi zita nagusi zituen iragan larunbatean. Lehenik, 18:00etan Gipuzkoako Txapelketako bigarren finalerdia jokatu zuten Oiartzunen (Gipuzkoa) eta bertan Amaia Agirre billabonatarra izan zen eskualdeko ordezkaria. Bigarren zita, 22:30ean Anoetan egin zen bertso saioa izan zen, herriko AHT gelditu! Elkarlanak antolatutako saioa, hain zuzen ere.

Amaia Agirre finaletik ia at

«Oraindik nire momenturik onena etortzeko dagoela sinistu nahi dut, akaboa bestela. Puntuari iritsi nahi dut Oiartzuna» aipatu zuten www.Gpuntua.com web orrian Amaia Agirrek galdera bati erantzunez.

Oiartzunen 484, 5 puntu bildu zituen billabonatarak, hirugarren postuan geratu zelararik. Hala eta

guztiz ere, orain arte jokatuak bi finalerdia kontuan hartzen badira, Agirre zazpigarren postuan aurkitzen da, hirugarren eta azken finalerdikoaren zain.

Finala baino lehen jokatu den azken saioa, hirugarren finalerdia, abenduaren 16an Ordizian (Gipuzkoa) jokatu da. Saio honetako lehena zuzenean finalera sailkatuko dela kontuan hartzen bada, Amaia Agirre une honetan finaleko azken bertsolaria dugu.

Oiartzunen Jon Maia nagusi

Bigarren finalerdian, Oiartzungo saioan, Jon Maia izan zen lehena, 499,5 punturekin. Bigarren 489 punturekin Iker Zubeldia geratu zen eta hirugarren lehen aipatu bezala Amaia Agirre. Azken hiruk *Mantxi*, Sukia eta Oiartzabal geratu ziren, puntuaren arabera jada finaletik kanpo.

Mendiluze eta Muñoa prest

Hirugarren eta azken finalerdia Ordizian (Gipuzkoa) abenduaren 16an jokatu dena izango da, larunbat honetan beraz. 18:00etan, Majori kiroldegian; Aitor Sarriegi, Iñaki Zelaia, Joxe Munduate, Iñaki Gurrutxaga eta eskualdeko bi

bertsolari; Aitor Mendiluze eta Unai Muñoa, finalerako txartelen bila abiatuko dira. Saioko lehena zuzenean sailkatuko da, besteek gutxienez 484,5 puntu lortu beharko dituzte abenduaren 16an Ilunben egon nahi baldin badute.

Bertsoz AHT gelditu nahian

Anoetako AHT gelditu! Elkarlanak bertso saioa antolatu zuen larunbatean herriko frontoian. 200 bat lagun elkartu ziren bertan oholtsa gainean aritu ziren bost bertsolariak entzuteko asmoz. Bertsolariak Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondo ziren. Bostak AHTren proiektua izan zuten hizpide agurrean eta saioko hainbat unetan. Egitasmoaren aldeko iritzirik ez zen entzun saio guztian zehar.

Antolatzaileek, AHTren inguruan Anoetan egingo duten herri galdetako bultzatzeko antolatu zuten bertso saioa. Horregatik saioaren aurretik AHTren inguruan egin duten DVDa ikusteko aukera izan zuten frontoira gerturatu zirenek. Herri galdetarekin batera, larunbatean Anoetan manifestazioa egingo dela gogoratu zuten, 17:00etan *Inposaketarik ez! AHTrikez!* lelopean.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

BESTERIK

■ **Zakurkumea.** Border Collie baten kume umea oparitzen da. Deitur: 658 70 59 12.



Denak Taberna mailari eutsi nahian

IBARRA » Hil ala biziko partida jokatu zuen Ibarra Denak Taberna taldeak iragan larunbatean. Areto Futboleko bigarren mailako Gipuzkoako senior mailan jokatu du Denak. Larunbatean etxean jokatu zuen partida; irabaziz gero iguerako faserako sailkatuko ziren ibartarrak eta galduz gero jeitsierako ligan aritu beharko zuten. Partida hasierako aukerak ziren hauek, 4-7 galdu ostean, aukera bakarra geratzen zaien ordea, maila mantentzeko borroka hain zuzen ere. ASIER IMAZ

Asteburuan bi ibartar hil dira trenak harrapatuta

Ibarra » 20:00ak inguruan gertatu zen larunbatean ezbeharrak Urnietan dagoen Renferen geltokian

A. IMAZ

Ibarra bi bizilagun, gizon bat eta emakume bat, hil ziren iragan larunbatean Urnietako (Gipuzkoa) Renferen estazioan tren harrapatuta.

Ezbeharrak iluntzean, 20:00ak aldera, gertatu zen eta 69 urteko gizon bat kolpearen ondorioz bertan zendu zen. Emakumea berri, 66 urtekoa, Donostia Ospitalera eraman zuten istripuaren ondoren zauri larriekin. Osasun zentroko iturriek jakitera eman zuten, ospitalera eraman eta hiru orduz hil zen emakumea

@ Eztatidak. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izan zen igandean: sentsibilizazio kanpainak gero eta anitzagoak diren arren, egunero komunikabideetan genero indarkeriarekin loturiko eraso berri irakur dezakegu. Non dago arazoa? Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia. Horretaz gain, gure web orrian aurkitzen diren hainbat iritzi irakurtzeko aukera eskaintzen atal honek, idatzi dutenekin eztabaidatzeko aukeraz gain: www.tolosaldeko-hitza.info

jasandako zauri larrien ondorioz. Gizon bat eta emakume bat Ibarra bizilagunak direla jakinarazi zuten.

Ibilbide luzeko tren

20:00ak inguruan gertatu zen ezbeharrak. Ibarra bizilagunak trenbidea zeharkatzen ari zirela Urnietako Renferen estazioan, ibilbide luzeko tren batek harrapatu zituen, Urnietan geldialdirik egin gabe Tolosarantz zihon tren batek hain zuzen ere.

Gertaera argitzeko Ertzaintzak ikerketa martxan jarri zuen larunbatean, tren zerbitzua 21:30ak arte geraturik egon zelararik.

«Gune arriskutsua»

Istripuaren ondoren, «gune arriskutsua» dela Urnietako geltokikoak aipatzen duten iritziak agertu dira, «orain artean bertan hain ez behar larrikeria gertatu ez baldin bada ere».

Urnietako alkateak, Mikel Izagirrek (UDA herri plataforma), Udalbatza deitzeko asmoa agertu du, gunean Renferi azpiegitura lanak egiteko eskatuz; «iragan urtean beste istripu bat gertatu zen eta larunbatean senar emazteak hil ziren. Beharrezkoa da oinezkoen segurtasuna bermatzea, horregatik, Renferi lur azpitik edo gainetik zeharbate bat egiteko eskaera talde guztiek onartzea espero dugu, Gipuzkoako beste hainbat herrietan funtzionamenduan daudenen modukoa, hain zuzen ere».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

S Soka motzean

«Hemen irauteko sekretua maitasuna jasotzen duzula da»

PAKO AIZPURUA

Elkar argitaletxeko azokalaria

IMANOL GARCIA

21 urte daramatza Pako Aizpuruak Tolasara etortzen.

Noiz arte dago zabalik Tolosako liburu azoka?

Igandera arte, egunero 11:00etatik 14:00etara. Arratsaldetan, 16:30etik 20:30era, baina asteburuan 17:00etatik 21:00etara.

Zer moduzko lanbidea da?

Ez da soilik lanbidea. Hemen nago maite dudalako. Itsas lehorreko marinela gara. Hemen mantentzeko sekretua, denboraren poderioz maitasun asko jasotzen duzula da.

Tolosakoak badu berezitasunik?

Errotua dagoen azoka da. Euskararen aldetik nabaritzen da. Euskal musika eta literatura saltzen da.

Hotzari nola egiten diozu aurre?

Batez ere umorearekin, kafe bat edo beste eta arroparekin.

Aurtengo liburua?

Euskaraz *Zu bezain ahul* eta *Euskara jendea*. Gazteleraz *El niño del pijama de rayas*, eta Toti Martínez de Lezearenak urre dira.

Eta diskoa?

Andale mi cuate rantxerak eta beti bezala Benito Lertxundi.

Zure gustuko idazlea eta liburua?

Joseba Sarrionaindia asko gustatzen zait. Joan Mari Irigoien ironia puntua ere. Liburua, Sarrionaindiaren *Hitzen ondoeza*. Horko esaldi eder bat: «Bihar, etzi, atzo» da.



I. GARCIA



Independentziaren alde apustua

ANOETA ● *Guk independentzia* lelopean Anoetan 25 lagun inguruk elkarretaratzea egin zuten larunbat eguerdian. «Inoiz baino arrazozi gehiago ditugu independentziaren aldeko apustua egiteko», azal zuten elkarretaratuek eta gaineratu: «AHT inposatu nahi diguten garai honetan ere ozen oihukatzen dugu independentzia beharrezkoa dugula zer nolako lurralde antolaketa, garraio azpiegiturak... nahi ditugun guk erabakitzeko».

Laburrak

Ipuinak aurkezteko epea hilaren 30ean bukatzen da

ZIZURKIL ● Teodoro Hernandorena VI. Ipuin Lehiaketara lanak aurkeztu nahi dituztenek hilaren 30era arte dute aukera. Egun hori barne, 14:00ak baino lehenago udal bulegoetan lan bakoitzaren hiru kopia entregatu behar dituzte.

Pilotalekuaren 2008ko erreserbak egiteko bilera

ANOETA ● 2008. urterako udal pilotalekuko orduen erreserba egin nahi duten guztiei bilera batera dei egiten die Udalak, urteko orduen banaketa adosteko. Bileraren abenduaren 4an izango da, datorren asteartean, 20:30ean, udaletxean.

Euskararen Astean murgilduta

Zizurkil » Pedro Mari Otaño eskolan Euskararen Astea antolatu dute; gaur Txan magoaren bisita dute

horma-irudiak gaur jarriko dituzte, 09:30ean hasita. 10:30ean, berriaz, Txan magoaren emanaldia izango dute. Arratsaldean emanaldia ikasleek egingo dute. 15:00etan hasiko dira.

Bihar Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia izango dute ikasleek, 10:30ean hasita. Gurasoek, berriaz, hitzaldia izango dute 15:00etan euskaraz. *Nola egin jostailu egokia*

aukeratzeko gaia jorratuko dute hitzaldian.

Euskararen hitzarmenaren inguruan ariko dira etzi, 15:30etik aurrera. Eta ostiralean, astea amaitzeko eta ohiturari jarraituz, arratsalde osoan zehar jolasak egingo dituzte. Guraso eta ikasleek parte hartzeko jolasak izango dira. Festa giroan, gaztain jatea ere egingo dute.

ERREDAKZIOA

Pedro Mari Otaño eskolan Euskararen Astean murgilduta daude. Atzo egindako marrazkiak eta

H Hilberriak

AITOR ZUBIRIA GUZMAN



Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Tolosako ezker abertzalea

TOLOS
2007ko azaroaren
27a

AITOR ZUBIRIA GUZMAN

Jauna

Osaba Maitia inoiz ez zaitugu ahaztuko.

Zure ilobak: Koldo, Ander, Beñat, Izaro, Aitor, Amaia, Nekane, Alba, Axier, Eneko, Igor, Irene eta Alex.

IBARRA
2007ko azaroaren
27a



IXIAR ILLARRAMENDI EZENARRO

Andrea
-Goian Bego-

Ez adiorik,
Ez agurrik,
Gure bihotzean
Izango zaitugu beti

Ameztoti Anaia-eko zure lankideak

ZARAUTZ
2007ko azaroaren
27a



AITOR ZUBIRIA GUZMAN



«Alai ibili arren gauaren ertzean laguna falta dugu eguna argitzean»

Hire lagunek

IBARRA
2007ko azaroaren
27a

AITOR ZUBIRIA GUZMAN

Ane eta Uxue gure ikasleen aita

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Uzturpe ikastolako eta haur eskolako langile, ikasle eta gurasoak



UZTURPE
IKASTOLA
ETA
HAUR ESKOLA

IBARRA
2007ko azaroaren
27a

JESUS M. LARRAÑAGA AZKUNE

'MAKA'

Kiruri aldean jartzen zendun umorea gauza guztietako jarri adorea Txori bakiak bezain txistu dotorea gure barruan zaude betiko gordea

Albizuri Odriozola sendia



AZPETIA
2007ko azaroaren
27a

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Dantza soka antolatze-ko bilera udaletxean 19:00etan.
- **Alegia.** Joxe Mari Karrera ipuin kontalaria Kultur Etxean, 18:00etan.
- **Leaburu.** Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatu dute. Izen-ematea, Txarama-ko kultur gunean eta udaletxean.
- **Tolosa.** Pedro Garciairen *Gash-brum II-ren igoera* proiektzioa Oargi mendi elkartearen 19:30ean ikusgai, Mendi Hamabostaldiaren barruan.
- **Tolosa.** Liburu Azoka San Fran-tzisko etorbidean, abenduaren 2ra arte.

Ikuskizunak

- **Tolosa.** Titirijal 07: Asturiaseko Teatro Plus-en *La leyenda del farol* Kultur Etxean 18:00etan; Txekiako Divadlo Lisen-en *Robinson* Goro-sabelen 18:00etan eta Madrilgo El Retal-en *El enamorado y la muerte* Kasinon 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Zorionak!

Nagore. Bidaia antolatzen onena zara. Liverpoolgo italiar jateko kamareroa.

Euskararen Egunaren harira, Ereite elkarte multikulturalak 'Nik ere euskaraz' lelopean hainbat ekitaldi antolatu ditu datorren asterako; antzerkia, hitzaldi-egtabaia eta afaria izango dira.

Euskara, kulturen arteko lokarri



Mayi Castillo eta Rita Calderon Ereiteko kideak, atzo, aurkezpenean. I. T.

ERREDAKZIOA

Euskal kulturari eta hizkuntzari dioten errespetua, ematen dioten garrantzia, eta bertan integratzea dela euren asmoa erakutsi nahi dute Ereite elkarte multikulturalako kideek datorren abenduaren 3an, euskararen egunaren harira antolatu duten egitararekin. Izan ere, *Nik ere euskaraz* lelopean antzerkia, hitzaldi-egtabaia eta afaria izango dira herritar guztiei zuzenduta.

Ereite elkartearen hasieratik pentsatu izan dute «bertakoei gure kultura errespetatu behar duten bezala, guk ere bertakoa, hau da, euskal kulturari, errespetua zor biogula eta hor euskaraz ere sartu behar da». Horregatik garrantzia eman diote euskaraz ikasteari, «bai-naez behartuta, nahi dugulako bai-zik».

Antolatu duten egitarauari dagokionez, immigrazioaren gairekin lotutako antzerkia izango da lehendabizi datorren astelehenean. Eta ondoren, hitzaldi-egtabaia Xabier Aierdi eta Joseba Antxustegiatarren eskutik, hizkuntza gutxietuei eta hizkuntzen sentimenduei buruz. Amaitzeko, asteazkenean, abenduaren 5ean, afaria antolatu dute sagardotegian, «euskararen eguna modu dibertigarrian ospatzeko».

» EGITARAUA

Abenduak 3, astelehena

■ **Antzerkia.** *Hamaika koloretan dantzan* antzezlan eskainiko du Zenbat Gara antzerki taldeak, Leidorren, 17:30ean. Sarrera doan.

■ **Hitzaldi-egtabaia.** *Hizkuntza dibertsitate berriaren eragina, hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuan*, Xabier Aierdiren eskutik, eta *Sentimenduetatik hizkuntzaren erabilerara II*, Joseba Antxustegiatarren eskutik. Tolosako Kultur Etxean, 19:30ean.

Abenduak 5, asteazkena

■ **Afaria.** Uzturre sagardotegian, 21:00etan. Sarrerak, 22 eurotan. Ikatzeta tabernan, Triangulo kafetegian eta Galtzaundin.

A Agurrak



Zorionak!

Leaburuko Mahala baserriko Luis eta Maria. Gaur 60 urte ezkondu zinetela. Muxu handi bat famaliaren partetik.



Urte askoan!

Iker eta Julen Esnaola (Belauntza). Gaur Ikerrek 4 urte eta abenduaren 5ean Julenek 6 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

txokoa **h**

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!



BRUESA GBC
CB Villa de los Barrios

OSTIRALA

AZAROAK 30 - 20:30

ILLUNBE